

DAMON ETA PITIAS
(SIRAKUSA)



Sirakusa'n, Kristo baiño lenagoko V gizaldian adiski-de aundi bi bizi ziran: Damon eta Pitias. Dionisio ankerra zan an agintari.

Dionisio ankerrak ez eban bear zio aundirik gizaki bat ilteko eta begitan artu eban Pitias eta ilteko agindu be bai. Pitias'ek sendo entzun eban agintariaren erabagia eta erabagia bete baiño len mesede bat eskatu eutson:Etxe-koak agurtzeko eta gauzak ondo moldatzeko, illebeteko epea.

Barri txar ori entzun ebanean Damon, Pitias'en laguna, joan zan Dionisio'ren aurrera eta laguna itzuli-arte bera egongo zala espetxean esan eutson. Dionisio ortarako gertu egoan eta Pitias'eri emon eutson illebeteko epea gauzak atontzeko, baiña ez daitela aitzu epea amaitzen danean. Eltzen ez ba'zan, bere lekuan geratzen zan Damon ilgo ebala.

Irurak batera zirala, joan zan Pitias bere etxera, esan eutsen etxe-koai zer jazo jakon eta bideak artu ebazan bera ilten zanean etxe-koak bakean bizi eitezan eta uriburura itzultzeko prestatu zan. Agurtu ebazan etxe-koak eta adiskideak eta guztiak samintasunez beteta itzi ebazan eta bera be biotza erdibiturik.

Uribururako bidea luzea zan eta berak ainbat lastarren eldu nai eban bere orde zespetxean egoan Damon zintzoa askatzeko. Baiña asmo guztiak ez dira beteten eta itzultzeko orduan oztupo asko aurkitu ebazan: ekaitzak, uriolak eta abar...

Sirakusa'ra sartzeko atera eldu zanerako ordu gitxi peitzen ziran Dionisio'k emondako epea beteteko.

Arin eta larri joian Sirakusa'ko kaleetan agintariaren jauregi-aldera. Arnas-estuka, ito-bearrean igon eban jauregiko mailladi luzea eta agintariaren gelara sartu zanean, ikaratuta geratu zan: Orduantxe jazo eban aizko-rea zigortzailleak Dionisio'ren aurrean Damon'eri samea ebagiteko. Eta Damon gizajoa, enbor gaiñean samea ebala, jainkoari erreguka egoan.

Itxaron! Ez il Damon!- oi u egin eban Pitias'ek-emen nator!

Zurtz eginda geratu ziran guztiak Pitias agertu zanean, aizkorea eskuetan eukan zigortzaillea bera be bai. Ariñeketan joan zan Pitias Damon makurtuta egoan lekura eta bere lagunari eskerrak emon-ondoren bere samea ipiñi eban enbor-gaiñean.

Dionisio ankerra ta biotz gogorrekoa zan, baiña ori ikusita arritu egin zan oso-osoan lagun bi arein adiskide-tasuna ain aundia zala ikusi ebalako. Beste egun baten beteko ebala bere zeregiña esan eutson zigortzailleari eta lagun biak alkarragaz jolastu egiela agindu eban. Pitias'eri zigorra parkatu egin eutson. Arrezkero lagun bi orrei bakean izten eutsen eta bien lagun izaten alegindu zan Dionisio erregea ankerra.

OLAZAR'tar Martin'ek

IZARRA	MAITASUNA
Ortzia urdin dago ederra dariola egal danetatik, oi gau zoragarria, urree dariozu zeru urdiñetik.	Loreen lorea zara biotz danak bigunduz gozotasunagaz, jakituri ederra eztitu dozu zugaz laguntasunagaz.
Nor da zure Egille. izardi zoragarri, urdin bikain ortan... zure jakituria norengandik datortzu maitasun orretan...	Gorrotorik ez dozu, bake ta poza dira lagunik nenak, gizarteko kateak urrez jantzia daukaz lurreko semeak.
Bat bera, bakarrik, da ori egin leikena... zeru-lurren Jauna, eta izar guztiak aintzaz goratzen dabe zerutar Jabea	Anaitasuna dator soiñurik ederrenaz gizarte maitera, gizadia aurrera gogorik onenagaz bizi izatera.
PAULIN	